

Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1993ko urriak 8 / III. urtea / 96. zenbakia

Batuaren plegu txarrak

Hizkuntza bateratua erdiesteko ahaleaginean ari dira euskal idazleak. Zenbait euskal idazle bederen. Euskarak beste hizkuntzek egin duten bide bera egin behar duela sinetsirik, batua gehiago zehaztu eta finkatzeaz mintzo dira. Orain arteko ahalegin garrantzitsuenetakoa izan da 'Kapitain Frakasa' Anjel Lertxundi oriotarrarena.

Akaso horregatik, Aingeru Epaltzaren 'Ur uherrak' liburuak kritikak jaso ditu hizkuntzaren aldetik. «Lokalista» eta «nafarkeria» bezalako adjetiboak leitu eta aditu ditu idazleak, eta kexu agertzen da baturatzeko ahaleginen aurrean. Hizkuntz afera «estutzeko ahalegina» badagoela dio, eta Gil Bera ere ez dator bat saiakera hauekin. «Bakoitzak bilatu behar du bere ahots propioa, eta inork ez du denendako oreka bilatu behar». Hizkuntz aferak, batua eta euskalkiak. Batuaren plegu txarrak.

Amen eta omen



INGERU EPALTZA

Altsasuko Lanbide Heziketako ikasleak greban. Bigarren urtea dute euskarazko irakaskuntza eskatzen, baina horretan hitza eta giltza dutenak ez bide daude amore emateko prest, ez bederen lerro hauek idatzi orduko. Hemendik bi astetara Gobernuburuaren zapela izanen dute, beharbada, Sakanako alderdi horretan oinezko, eta miresmenaren miresmenaz esker egin beharrez belaunikatzen garenean, elkarri errepikatuko diogu Ezkarozeko apezkondo kaskazuriak ez zuela egundaino halako balentriarik egin. Inor ez da jadanik, ikasle altsasuarrez oroituko.

Gobernu hau abiatuz gero, ikasge-la elebidun bat bera ere ez da ireki irakaskuntza publikoan. Euskal irratien aferak konpondu gabe dirau. Unibertsitatea lehen bezain eremu mortua da euskararendako. Euskal Telebistak pirata izaten segitzen du. Euskaltegiendako dirulaguntzak urriagotu dira. Gobernuko funtzionari eta kontratatuek gero eta traba haundiagoak dituzte Administrazioak berak antolatzen dituen euskalduntze planetan sartu ahal izateko. Euskarari buruzko Legea aldatzeaz mintzo dira, baina testu zahararen atal gehientsuenak betearazi gabe daude oraino...

Alabaina, Altsasuko ikasleak dira hemen isiltasunaren kontsentsua hausten duten bakarrak. Kontsentsua baitago hemen orain, ez hain aspaldiko dena-hautsi-behar bipilaren partez. Zakarrak suertatzen ginen lehenago, eta chip bat baino gehiago xahutua naiz bertzelako jarrera erakusteko premia aldarrikatzen. Iduri luke, ordea, bidaia kontrako muturrera egin dugula, alferrikako oldarkeriari otzankeriak lekua hartu diola. Susmoa dut, gainera, garai batean ahotsa gehien goratzen zutenak ez ote diren orain isilenak.

Bizkitartean, joan den ortzegu-nean bezala, Alli jaunak Oñatin lau hitz euskaraz murduskatu eta gaseosak gainezka eginen digu hankatartean. Egun berean, Iruñean oraingoan, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren ikasturte hasierako ekitaldian ez genion halakorik aditu. Aspaldiko errana da, kanpoan uso, etxean otso. Baina artaldea kontent da orain oraingo otsoarekin. Edo hala ez bada, horren itxurak egiten ditu. Beharko.

UR UHERRAK



FISIKAZ HONATAGO


GIL BERA

"ALBADOR" SARIA

PAMIELA ETXEA

ANJEL LERTXUNDI

Kapitain Frakasa



Gure aukerak

ERAKUSKETAK



Patxi Ezkieta pintore naparraren bi erakusketa ikus daitezke egun hauetan Iruñean, bata Nafarroako Museoan, urriaren 17a arte, eta bestea Kribia Galerian, 30a arte. Erakusketa hauetan, artistak Marokkon egindako azken lanak daude ikusgai.

Ramon Roig artistaren erakusketa zabalik dago Iruñean, Aurrezki Kutxa Muzikazaleen Gotorlekuan duen aretoan. Lanak ikusteko ordutegia hauxe da: lan egunetan, 19.30etatik 21.00etara, eta jai egunetan, 12.30etatik 14.00etara.

P. Azketa, X. Morras, M. Rojo, L. Garrido, P. Oses, A. Sada, Julio Pablo, J. Resano eta P. Salaberriren erakusketa egonen da ikusgai, urriaren 29a bitarte, Iruñeko Pintzen galerian.

ZINEMA



'Algunos hombres buenos' izeneko pelikularen emanaldia antolatu du Lizarrako Cinefilos Anonimos taldeak biharko, urriak 9. Zinema emanaldia Julian Romano kontserbatorioan izanen da, arratsaldeko zortzietan hasi ta, eta sarrerak 300 pezetatan salduko dituzte.

Zine soviatarri buruzko zikloa antolatu du Nafarroako Ate-neoak. Ziklo honetan 30 pelikula eskaniatu dituzte, eta ikasturte osoko iraupena izanen du. Heldu den ostegunean, urriak 14, 'Las extraordinarias aventuras de Mr. West en el pais de los Bolcheviques' izeneko filmea botako dute, arratsaldeko 20.00etan, Olite zinemetan.

BERTSO SAIOAK



Manolo Arozena eta Iñaki Murua bertsolariak, aurrez-aurre ariko dira bihar larunbata, urriak 9, Donamariako herriko plazan, eguerdiko 13.30etan hasita.

Xabier Amuriza eta Estitxu Arozena bertsolarien saioa izanen da datorren asteartean, urriak 12, Iruñeko Anaitasuna poliki-roldegian. Bi aldiz ariko dira, eguerdiz lehena eta bazkal ostean hurrengoa.

MUSIKA




Anje Duhalderen kontzertua izanen da datorren astean Lesakan, astelehenean, urriak 11, hain zuzen, herriko pilotalekuan. 'Arranoa' elkarteak antolatu du kantaldia eta Gaueko 11.30etan hasiko da. Sarrerak, berriz, 500 pezetatan salduko dituzte.

Izkoko mendizerra

Izkoko mendizerra eragin handia duen oztopo klimatiko baten partaidea da. Ur- isuriaren arteko muga gainditzen duten hodeiek, Iruñerria zeharkatu ondoren, mendizerra honekin egiten dute topo, eta ez dute sobera aldiz gainditzen. Horregatik, euria eta eguzki kopuruetan, desberdintasun handia dago iparraldera ematen duen alde eta Orbaibar eta Aibarren artean. Mendizerraren goiko aldean 1.000 l/m²ko euri kopuruak gainditzen dira, eta aipatu zonaldeetan franko txikiagoak dira. Ibilbide honekin Ibargoiti, Bizkaia mendia eta Ezprogi bisitatu ahal izanen dugu, beti ere mendi lauetan, aldapa handirik gabeak.

Ibilbidea Abinzanotik ateratzen da, Izkora daraman bidetara jarraitzeko. Izko behin utzita mendizerrara doan bide zaharra hartu beharra dago. Errekatxo bat zeharkatu ondoren, malda igotzeari ekingo diogu, ezpel eta pinuen artean, Leatxeko zelaietara heldu arte.

Bertan oraindik aurkitu ahal izanen ditugu laboreak, bereziki garagarra, ia tontorreraino igotzen baita. Egutera da, izan ere. Ozpelan, zelaia utzirik daude, belardiz estalirik, eta gero pinu-



J. APEZTEGIA

diek menderatuta. Beste batzutan birlanaketa franko ikusi ahal izaten dira. Gehienak pinuak dira.

Behin goian, eskuin aldera hartu, Latxeroko bordara heldu arte. Segituan topo egingo dugu Izkoko bide zahararekin, eta atzerago utzia izanen dugu ordurako ardidibidea. Irunberrin jaiotzen da, Zaraitutik Bardeetara doanatik bereiztu ondoren, eta Izkoko mendizerra zeharkatu ondoren, Tafalla eta Larra-

ga bitartean, Tuteratik Andimendira doanarekin uztartzen da. Gaur egun apenas erabiltzen den, ehiztariak izan ezik, baina inguruko zelaietako hesiek errespetatu dituzte mugak.

Hortik aurrera, Antxurda izeneko dermiotik, mendizerrako bide zaharra zeharkatuko dugu, eta segituan ekingo diogu beheko bidetara. Basoak eta zelaia tartekatuz, Antxurdara doan bidea hartuko dugu berriro, eta segituan Abinzanon.

ASTEKO PERTSONAIK



Pantxo Egozkue
Pilotoa

Europako mendiko txapelduna da joan den igandetik Pantxo Egozkue iruindarra, Asturiaseko Fitoko frogan irabazi eta gero. Andres Vilariño gipuzkoarra zen faborito nagusia, baina larunbateko azken entrenamenduan istripua izan zuen honek, eta naparrak titulua eskuratu zuen. Hau da Egozkue lehena titulua, Europa mailan noski, txapelketa horretan azkeneko bi urtetan parte hartu badu ere. Oso pozik agertu zen Atarrabiako. «Oraindik ezin dut sinistu, ikusiko dugu denbora pasatzen denean nola sentitzen naizen». Astelehenean iritsi zen Iruñera, eta bertan, zaletu askoren txaloak eta harrera goxoa jaso zuen. Egozkue Peñako kideak, Atarrabiako lagun ugari, horien artean alkatea, txaranga bat eta beste jende asko zuen zain Pantxo Egozkuek.



Francisco J. Saenz de Oiza
Arkitektoa

Francisco Javier Saenz de Oizak kritika gogorrak entzun behar izan ditu Nafarroako Unibertsitate Publikoarentzat prestatu duen proiektua dela eta. Hain zuzen ere, Kontu Ganbarak argitaratu duen NUPen eraikuntzari buruzko agiriak, zalantzan jartzen du Saenz de Oizaren proiektua eta baita arkitekto bera kontratatzeke modua ere. Agiri honen arabera, eraikuntza egin behar izan diren berrikuntzen % 36a, jatorrizko proiektuaren akatsengatik izan dira. Ondorioz, agiriak argitzera ematen duenez, 1992ko abenduaren 31ra arte egindako berrikuntzek, mila milioi pezetako garestitzea ekartzen zuten. Kontu Ganbararen datuen arabera ere, proiektua % 20an garestitu zuen TI-PSA ingeniari enpresa kontratatzeak.



Carlos Ziriza
Pintorea

Carlos Zirizak, beste sei nafar artistekin batera, Frantziako hainbat erakustokietan paratuko ditu bere lanak, 'Nafarroatik Frantziara joanetorrian' izeneko erakusketaren barruan. Iruindarrekin batera, Alfredo Diaz de Cerio, Pilar Garcia Escribano, Patxi Idoate, Antonio Laita, Jose Miguel Morena eta Jose Ulibarrena izanen dira bihar bertan Bordelen zabalduko den erakusketa. Nafarroako estilo guztietako partaideak, beraiek egin dituzte gestio guztiak, eta Vianako Printzea erakundeak paratu du dirua. «Hasieran» azaldu zuen Zirizak, «abangoardietako erakusketa egitea bururatu zitzaigun, baina gero estilo guztiek kabida izango zutena egitea erabaki genuen». Erakusketa honen bidaia Parisen amaituko da, eta gero Nafarroako Museoan eskegiko dute.

AHAZTU GABE!

IRUÑEKO Planetarioak 'Las vueltas que da la vida' izeneko erakusketa zabalduko du gaur ostirala, arratsaldeko zortzietatik aurrera. Mundu osoan ugari diren zirkuluei buruz, erakusketaren munduan eredu berri bat ezarri nahi du muntai honek, gai eta mota askotako ekarpenekin, baina gai zehatz baten inguruan, beti ere. Pintura erakusketek, normalean, arkeologia edo teknologia erakusketen mintzaira ezberdinek erabiltzen zuten, baina honetan dena dago nahastuta. Bertan ikusi ahal izanen dira landare eta animaliak, hiru dimensio dituzten tramankuluak, eguneroko tresnak, grafiak eta marrazkiak, argazkiak, ordenagailuak, behialako lanabesak, eta abar. Dena zirkuluarekin lotuta.

Erakusketaren zabalpenak, Madril burutzen ari den Planetarioen Zuzendarien Nazioarteko Kongresuaren partaideei egingo zaien harrerarekin egingo du bat, eta ondoren Kontzertu bat izanen da Iruñeko Katedralean, Musika Kapelarekin, Aurelio Sagaseta maisuaren zuzendaritzapean. Urria eta abenduan zehar ikusi ahal izanen da erakusketa, eta Granadako Zientzien Parkeak eta A Coruña Zientzien Etxeak ekoiztuta da.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Ostegunero, arratsaldeko 4etan, **30 seme-alaba Nafarroako**. Elkarrizketak.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... **Karakola segi hola** gazteendako saioa.

RNE RADIO 1 OM 835

Astean zehar 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarrizketak.

AMODIO kontuetan nork ez du faltan bota inoiz penak nori kontatu? Orain iruindarrekin badute aukera, 'De tripas corazon' Eguzki Irratiak estrenaitu berri duen irra-saioarekin. 'Aita San Antonio Urkiolakoak' eta beste sailek denei soluzioa ematea dute helburu. Asteazkenetan, 9etatik 10.30ak bitarte.

Euskal Espeleologi Jardunaldiak



PATXI ULAIAR / IRUNEA

Euskal Herriko Espeleologi XXI. Jardunaldiak ginen dira bihar hasi eta astearte bitartean Aralarren, Euskal Espeleologo Elkarteak eta Lizarrako Espeleologi Taldeak antolatuta. Lau egunetan, Aralarko erdiko antiklinalak hartzen duen eremua eta Larretxiki-Ormazarreta ingurua miatu eta aztertuko dituzte Euskal Herri osoko 16 espeleologi taldetako partaideak, eta egunen amaieran Aralarko Guardetxean azaldu eta laburbilduko dira lanak. Hauek dira Nafarroan egiten diren seigarren jardunaldiak, 1957an Urbasan, 1960an Larran eta 1978, 1979 eta 1988an Aralarren bertan izan baitziren.


XXI. jardunaldi hauen asmoa orain dela 47 urte hasitako lanen ildoari jarraitzea da, haren oinarriko xedea kontuan hartuz: euskal espeleologo guztien arteko adiskidetasun giroa bultzatzea. Denbora ez da alferrik igaro, jakina, eta Arantzazun 1956an egin ziren lehendabiziko jardunaldi haietatik hona espeleologi teknika eta metodoak aldatu egin dira, franko aldatu ere. «Alabaina», azaltzen dute antolatzaileek, «ordu bezala badugu honetan segitzeko lagundu digun lokarria: talde guztien ezagupen eta espeleologikari elkarri jakinaraztea».

ARALAR EREMU AZTERTUENETAKOIA

Aztertu nahi diren zonaldeak ez dira sobera ezagunak, nahiz eta Aralar toki aztertuenetakoa izan Euskal Herri osoan. Izan ere, lehendabiziko miaketak 1920 aldera hasi ziren, orduan sailkatu eta zehaztu baitziren lehendabiziko leizeak. Espeleologi modernotzat jotzen denaren erara egindako lehendabizikoak, baina, 1945koak dira, Arantzadi Zientzi Elkarte eta Vianako Printzea Erakundearen Espeleologi Taldearen sorrerarekin. Hasierako azterketa hauek paleontologikoak eta geologikoak izan ziren, baina ondorengoak leize handien ezagutzaz arduratu ziren. Orduan parte hartu zuten Euskal Herriko Espeleologo Elkarteko talde frankok, 1978 eta 1979an izan ziren jardunaldietan.

Azterlan hauen ondotik Aralar nahiko ongi ezagutzen dela esan daiteke, baina, hala ere, nabaria izan da taldeek zona jakin batzuekiko izan duten joera. Beste batzuk, ordea, utzirik gelditu dira, edo ahalegin handia eskatzen dute, bereziki zailak direlako.

530 Horieta
METROTAN bat da Aralarren erdialdean dagoen 10 kilometroko ere-



Euskal Herriko 16 taldetako partaideak bilduko dira Aralarren.

mua. Bere mugak iparraldetik Mailoetako harkaitzak dira; mendebaldetik Arritzagako malkorra; hegoaldean Errenagako mendiak eta Unanuko Putzuaren sakana, eta ekialdean Pallardi eta beste batzuk. Unitate zabal bat osatzen du eremuak, oso karstifikagarria eta ahalmen handikoa, azalean lenar handiak erakusten dituena, landaretzarik gabe. Drenaje moduan ur-sorburiak ikus daitezke Larraun-Iribasen, Zazpi Iturrietan eta Irañetan. Zonalde honetako miaketek ahalik eta ezagutzaren handiena biltzea dute helburu, ia az-

tertu gabe baitago bere osoatasunean. Halaber, honi gehitu nahi zaio Balerditik Gaintzarainoko tartea.

Bigarren eremua Larretxiki-Ormazarretan finkatuko da. Hor Hego Urgoniarreko sistema badago, oraindik ere argitu gabeko zenbait puntu ilunekin. Izan ere, ezagunak dira Ormazarreta II eta Larretxiki izeneko leizeak, baina oso garrantzitsu eta zailak dira, eta, beraz, gutxi ezagutuak. Ormazarretako ibaira iristeko Larretxiki leizetik hartu behar da, eta sakoneko miaketak errazteko kanpamendu bat jarri nahi da,

520 metro tara. Bertan lau pertsona osaturiko taldeak txandaka ariko dira. Halaber, Pagomarin lanean ari diren Satorrak eta Arantzadi taldeei ere laguntza eman nahi zaie, horretarako astia eta beta izanez gero.

Jardunaldiak gaur bertan, ostirala, hasiko dira, Aralarko Guardetxan partaide guztiei 20.00etan egingo zaien harrerarekin. Eguneroko lana goizeko 8etan hasiko da, gosariarekin, eta ondoren aipatu eremuak miatu eta aztertuko dira. Egunero, itzultzean, lanaren berri eta taldeen diapositibak ikusi ahal izango dira.

LIZARRAk museo sefardi bat izan lezake, duela 500 urte penintsula osoan zehar zutuzten judutar hauei buruzko ihardunaldietan horrelako proposamena sortu baitzen joan den larunbatean. Izan ere, Lizarran egon zen Toledoko (Espainia) Museo Sefardiren zuzendaria, eta bertara urtero 300.000 bisitari inguru azaltzen direla adierazi ondoren, Egako hiriak ere horrelakoren bat izan lezakeela esan zuen. Gogoratu behar da judutarrek utzitako ondare historiko eta kulturala oso handia dela, eta fisikoki ezinezkoa da orain dauden instalakuntzetan gordetzea. Lizarra izan zen Nafarroako judutarren zentrurik handiena, Tuterarekin batera.

ATARRABIAk jaiak direla eta saiheskiak bete arte hartu zituzten herritarrek Ultzama auzoan joan den asteartean, urtero bezala. Euria agertzekotan egon zen, baina azkenean ez zuen tantarik bota, eta mahaiak eta suteak anitz izan ziren. Udalak paratu zuen ogia eta ardoa, gatzak eta xirmendua, eta atarrabiarrek saiheskiak. Udalak paratutako zenbait ekin-tzekin jostatu ziren: zezen mekanikoa, txaranga bat, eta iraulka bat, goian urdaiazpiko eta guzti.



BARAÑAINgo Alaitz ikastetxe gurasoek protestaldia egin zuten asteazken honetan, OHOko euskarazko beste gela bat egiteko administrazioari egindako eskaera onart dadin. LOGSE legearen arabera, 25koa da gela bakoitzean egon daitekeen haur kopururik altuena, baina bertako gela batean 33 dira haurrak. Hezikuntza sailarekin izandako bilera guztietan adostasuna agertu da horren behararen aurrean, baina inork ez du orain arte inolako erabakirik hartu. Hala ere, erdarazko zenbait gela berri sortu dira, eta argudio bakarra ekonomikoa da. Gurasoen ustetan, beste gela sortzen ez bada, euskarazko lerro osoa izanen da kaltetua.

Hau ez da izan kasu bakarra aste honetan, Sanduzelai ikastolako haurrak pasilloan ari baitira jaten egunotan, leku nahikorik ez dagoelako. Izan ere, lehendabiziko txandan, euskarazkoan, 220 haur dira, eta jantokiak ez du ematen. Administrazioak erdarazko lerroetako hurrekin elkartzea proposatu du, baina gurasoek ez dute neurria onartu, irakaskuntzaren maila jeitsiko litzatekeelakoan.

Gazteendako Zokoa



XAKEAN



Nafarroako taldekako Xake Txapelketaren 5. jardunaldiko partida, 1992ko azaroaren 14ean jokatua.

Fernando Garcia Ruiz (Casco Antiguo) Ander Gamezen (Obereña 'A') aurka.

1.e3,Zf6; 2.b3,g6; 3.Ab2,Ag7; 4.c4,0-0; 5.Zf3,d5; 6.d5,Zd5; 7.Ag7,Eg7; 8.d4,c6; 9.Ae2,Da5 xa; 10.Dd2,Dd2 xa; 11.bZ-d2,Ag4; 12.0-0,Zd7.

Txurien irekialdia ez da oso erasokorra izan, eta beltzek endroka egin eta piezak garatu egin dituzte. Oreka nabarmena da.

13.Ac4,fG-d8; 14.h3,Af3; 15.Zf3,7Z-b6. Egoerak blokeatzeko joera daukanez, bi zaldiek alfila eta zaldiak baino balio gehiago eduki dezakete. Horregatik, alfildu txuriak zaldia harrapatzeko aukera galeraztea hobeto zegoen.

16.Ze5,f6; 17.Zd3,Zd7. Txuriak zaldiaz 'c5' laukira iritsiz gero, peoia eta 'e5' mehatxatuko lituzkete. Hortik dator beltzen zaldiaren pauso hau.

18.Ad5,d5. Berriz, erabateko berdintasuna, ikus koadroa.

19.aG-c1,dG-c8. Bai! Gaztelu hau jarri behar zuten. Bestela, 'Zf4' jokaldiak peoia eta 'e6' erasoko lituzke.

20.Zf4,Zb6; 21.Ze6 xa,Ef7; 22.Zc7,aG-b8; 23.Gc3,e6; 24.fG-c1,Ee7; 25.a4,Ed7; 26.Ef1. Berdinketa adostu zuten. Oreka handiko partida, baina txuriek zaldiaz tentsioa ere ipini zuten.

Etxe erosoia, norentzat?

AINARA FERNANDEZ

Goizeko seiak dira. Ezin dut lorik egin. Eguzkia nere logelako lagunari aurpegian ematen dion bitartean, berak irrifar goxo batekin erantzuten dio, beti bezala.

Uda hasi zenetik, hauek dira goizeko nere diarioan apuntatzen ditudan hitzak, berdin-berdinak lehendabizikoetatik hasita azkenekora arte, otoitz bat izango balitz bezala.

Bizitza hemen oso erosoia da, baina mundu errealetik nahiko baztertua. Hemen dena arrosa kolorekoa da: lo egin, jan, jolas, paseok eman, irakurri, telebista ikusi. Haurtzandegian bezala gaude, baina askoz eta urte gehiagorekin. Bai, bizitza erosoia baina aspergarri eta monotonoa, beti jende bera zure inguruan. Baina txarrena gauak dira. Ohean sartu eta ondoko logelan dagoen Ferminen eztlak etengabe nere

belarrian mailukadak izango balira bezala sartzen zaizkit. Eta hau ez da txarrena. Lotara joan baino lehen komunek merkatua dirudite: bata makuluekin, bestea 'sonotonea' edota betaurrekoak, edo horzdura postizoak; den dena, beren garbitasunerako behar duten guztia eta logelaren zenbakia, arrosa edota urdinez, segun eta emakume ala gizona zaren, oso txukun eta ordenatuak. Behin eta garbitasuna amaitu, bakoitza bere logelarantz abiatzen da, bakoitzak ahal duen moduan. oso burugorria bada (adibidez ni) edota makuluez eta erizainen laguntzaz baliaturik. Ez zait atsegin ume mukizu batzuk bezala tratatzea. Hemengo gehienek, adinaz, erizainak bikoitzen ditugu, eta haiek baino esperientzia gehiago daukagu bizitzan, eta hala ere, ume batzuk bagina bezala tratatzen gaituzte.

Hona ekarri nindutenean, beste gauza zela esan zidaten.

Noski, etxean ezin nuen gelditu nere alabak eta bere senarrak etxetik kanpo lan egiten zutelako eta gainera Aitortxo zeukaten zai etxera ailegatzerakoan. Orduan esan zidaten «begira aita, hobereña izango litzateke zure adineko jendea bizi den etxe horietako batera joango bazina, han ez zinen bakarrik egonen baizik eta lagunaren artean. Gainera dena eginda izango zenute eta egun guztian zehar gustoko dituzun gauzak egiten...».

Bai, oso polita dirudi. Agian txarrena nere adineko jendeaz inguratuta egotea da. Ez dago bizitzaren arrastorik inon, ia hilda bageunde bezala da. Txominen bere ezkerreko besoa alxtatu du. Laister ohean eseriko da eta futbolaz hitz egingo dugu. Behintzat, jende jatorra da eta gure artean ongi konpontzen gara, espirituz gazteak sentitzen gara gehienak. Beste batzuk, ordea...



Montejurra (I)

Hiri askok oso harreman es-tua izaten ohi dute ondoan duten mendiarekin. Iruñeak, esate baterako, San Cristobal edo Ezkaba duen bezala, Donostia Igeldoarekin lotzen dugu eta Bilbao Artxandarekin. Lizarrakoek, bertako beste mendiren bat badute ere, Montejurra dute ikur-mendia.

Kasik esan liteke Estellerriko mendia ere badela. 1044 metro eskax dituen arren hegoaldera zabaltzen diren Erriberako zelaitzarrek tantai baten itxura ematen diote. Gure mendia, mugarría bailitza, naturak eraikitako gaztelu izugarria da. Iparralderantz Estellerria eta hegoalderantz Erribera. Klimaz den bezainbatean Montejurra erabateko eraginik ez badu ere kultura eta hizkuntzaren aldetik diferentzia handiagoak eragiten ditu. Montejurra herriak euskaldunak izan dira oraintsu arte. Irudi luke mendiari itsasita egoteak urtetan euskarari amasa eman ziola. Los Arcos betidanik arrunt erdalduna izan den bezala Arronitz, berriz, arras euskalduna, nahiz eta gaur egun mendi eta paraje izenek bakarrik euskaraz jakin. Zergatik orduan izen erdaldundu hau? Ez al zen Jurramendi jatorrizko izena?

Eloko Higareen kasuan errealtatea zen baino beltzago ikusten zuten baten batek izen euskalduna berreuskaldundu zuten eta *Elo-mendi* distiratsua sortu zuten. Karlisten mendi sakratuari ere norbaitek gaztelaren usain sarkorra kendu nahi izan zion eta Jurramendi sortu zuten. Sortu, diot, inoren ahotik entzun ez zuelako eta inon irakurri ez zuelako. Agi denez, itzultzaile on xamarra zen, ez bait zen kontent gelditu mendi sartzearrekin eta lekuz ere aldatu bait zuten. Euskal senak eramana, beraz, *Jurramendi* euskaldunen ahoetara eraman nahi izan zuten. Eta zinez, ezin arrakastatsua suertatu zen inbentua. *Lur Enziklopediak* horixe baitakar, *Jurramendi*.

Baina toki izenekin ez dago jolasterik. Arau finkorik ez dute ezagutzen eta gutxien espero denean erregela berria ezartzen dute partidaren erdian, aurkari lotsagarri utziz. Euskal Herrian zeharko biaketxoak eginez gero Gasteiz ondian *Mendixur* izeneko herriarekin topatuko ginatke. *Mendixur* gaurko izen ofiziala, bertakoek *Mendijur* ahoskatua. Mendixurretik Iruñera bidean Altsasuko *Mendixurbe* eta Ergoien Unanun *Mendixur* izeneko mui-noak ezagutuko ditugu. Dokumentazioan *mendijur*, *mendisur*, *mendifur* eta *mendichurri*. *Mendixur* eta *mendixur* ahoskatua. *Bidaia Zaraitzu eta Urraulgo mugetan* bukatuko dugu *Aldasur* izeneko mendian, 1190 metrotakoa.

MIKEL BELASKO



KAZKARROAN

KONTRAPASA

Erantzunak zehaztu joan ahala, pasa ezazu letra bakoitza dagokion laukira. Beheko taula osatu ondoren Ultzaman bilduriko erranairu zahar bat ageriko zaizu.

1. Egitekoa
2. Garaia
3. Pilota joko mota
4. Istil, osin
5. Bidasoaldean, igel

B	2	A	2	B	7	D	2	
A	9	A	6	B	3	A	5	
A	4	A	7	B	4	D	7	
A	1	D	5	A	3	D	6	D
A	8	B	8	B	9	B	5	D

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
A									
B									
D									

Jenero Xumekoak

Justizialdapeta

Hauxe da Martzelogradoko alderdirik ederrena. Gaizkileak urkatu eta itotzen ziren bitartean galba izeneko jolasean aritzen ziren ikusleak. Etxean hori irakatsi bait digute, ohitura zaharrak mantendu beharrekoak direla, bestela, akabo gure Euskalerrri maitea.

JEREMIAS ERRO

Gazteendako Zokoa

Xirrixta' haurrendako euskal aldizkariak harpidetza kanpaina berriari ekin dio Euskal Herri osoan, duela urtebete Uztaritzen (Lapurdi) hasi zen lana sendotu eta finkatzeko asmoz. 'Xirrixta' aldizkaria Nafarroan arrakasta

handiz banatu ondoren, ikastola eta ikastetxe guztietan zabaldu nahi dute aldizkariaren arduradunek, Euskal Herri osoan banatzen den mota honetako lehendabiziko publikazioa baita.

Jostatuz ikasi

PATXI ULAIAR / IRUÑEA

Xirrixta' aldizkariak Zube-roan izan zuen sorrera, Uñaitza elkarteak haurrentzako euskaraz idatziriko aldizkari baten ideia izan zuenean, 1987an. Elkarteak lan taldea eratu zuen, guraso, irakasle eta euskal kulturazalez osaturik, eta kontuan harturik aldizkari oso bat sortzeko zekartzan arazoak eta eskatzen zituen bitarteko bereziak, ordurako haurren prentsan aditua zen argitaletxe baten esperientziak baliatzea bururatu zitzaientzen, egitura bikoitza asmatuz: zenbait orrialde bereganatu eta itzuli eta beste zenbait sortu. Lehendabiziko kontaktua Toulouseko Milan argitaletxearekin egin zuten, baina elkarteak bertan behera utzi behar izan zuen helburua, diruz eskas zebilela eta.

1990ean, sortu eta berehala, Euskal Kultur Erakundeak berreskuratu zuen egitasmoa, eta berehala lehentasuna eman zion, Euskal Herri osoan molde horretako euskarazko haur aldizkari modernorik ez zegoela jabeturik. Zenbait erakunderekin —Eusko Jaurlaritza, Akitaniako Centre Regional des Lettres, Europako Hizkuntza Minorizatuen Bulegoa— hitzarmena egin zen, eta Milanek argitaratzen duen lau eta zortzi urte bitarteko haurrentzako 'Toboggan' aldizkaria hartzen da eredutzat 'Xirrixta' aldizkaria moldatzeko.

Hala ere, moldatze hau ez da izan egokitze hutsa. Formatoa eta ikuspegi orokorra errespetatuta, ale bakoitzak dituen 24 orrialdeetatik 19 'Toboggan-etik' hartuak dira, eta euskarara itzuliak, eta gainontzeko beste bostak Euskal Herrian sortuak dira. «Egitura bikoitz honi esker» aldizkariaren txostenak azaltzen duenez, «haurrak bere inguru hurbila, bere kultura ezagutzeko aukera izanen du, munduari begiak irekita utzirik».

Aipatzekoa da Milan argitaletxe honen espezializazioa, bederatzi hilabetetik hasi eta helduak bitarteko adin guztietarako bederatzi argitalpen desberdin ekoizten baititu: 'Picoti', bederatzi hilabetetik goitiko haurrendako; 'Toupie', bi urtetik goitikoendako; 'Diabolo', zazpi urtetik goitikoendako; 'Mikado', bederatzi urtetik goitikoendako; 'Wakou', izadi gaiak, hiru eta zazpi urte bitarteko haurrendako, eta bi astekari, gazte eta helduendako. 1890ean sortua, arrakasta handia lortu zuen berehala, orduan berria zen kontzeptua bultzatu baitzuen: hezkuntzalari,



Azken alearen azala.

psikologo, irakasle, guraso eta kazetariak biltzea, haurren aldizkariak sortzeko. Hortik sortu zen bere lehen aldizkaria, 'Toboggan' hain zuzen ere. 13 urteren buruan, 145 langile dituen Milan argitaletxea zeharo finkatua eta hedatua da Frantzia osoan.

EUSKARA BEREZIKI ZAINDUA

'Xirrixta' kalitate handiko argitalpena da, marrazkiz eta jokoz betea. Ikastetxean kalitate handiko pedagogi tresna izan daiteke, eta etxean, jolaskide. Irakurketarako bidea irekitze duelarik helburu, hizkuntza be-

reziki zaintzen du aldizkariak. Euskara batua izan da hautatua, «haur guztientzako izan nahi baitu, Iruñetik Baionara, Mauletik Bilbora», baina Euskal Herriko zazpi probintzietan erabiliak diren hizkerak hobeki ezagutzeko eta gurutzatzeko ezinbesteko

«Nafarroa, ongi eta fite»

P.U. / IRUÑEA

Aldizkariak harpidetzekin egin du apostua, eta azken bederatzi hilabete hauetan egindako kanpainari esker 2.200 harpidedun lortu dira Euskal Herri osoan, horietariko 333 Nafarroan. Urte honen bukaerarako 4.000 osatzea dute xede, «kopuru horrekin eta erakunde ezberdinek ematen dizkiguten dirulaguntza berezien bidez, egiazko finantza oreka eta egitasmoaren sendotzea lortuko litzateke eta». Nafarroako Gobernuak iaz 500.000 pezetako dirulaguntza eman zion argitalpenari, eta aurtengo milioi batekoa izan da, bikoi-

tza beraz.

Harpidetza kanpaina bizia izan da, eta Nafarroako ikastolak eta B edo D ereduak dituzten ikastetxe guztiak ukitu ditu, Kattalin Totorika aldizkariaren kudeatzaile nagusiak azaltzen duenez. «Bertan daukagun laguntzaile batek bisitatu ditu ikastetxe guztiak, eta hilabete honetan ekingo dio kanpaina berriari. Nolanahi ere, esan behar da Nafarroa ongi eta fite erantzun diola eskaintzari». Kontuan hartu behar da Ipar Euskal Herriaren 800 direla harpidetzak, baina Araban 101, Bizkaian 233 eta Gipuzkoan 700. Kopuru polita, beraz, Nafarroakoa.

Ikastetxearen arabera, harpidetza egiteko modua desberdina izan da. Batzuetan irakasleek beraiek banatu dituzte agiriak, eta beraiek jaso ondoren, Euskal Kultur Erakundera bidaltzen dituzte. Bestela, gurasoek beraiek bidal dezakete agiria. Oraindik agiri hori ez duenak, ikastetxean eskatu, edo zuzenean Euskal Kultur Erakundera deitu behar du: 07-33-59 93 25 25, Uztaritzen (Lapurdi) duen bulegora.

Halaber, Altsasun, hilaren 24-ean izanen den Nafarroa Oinez- en ere mahaia paratuko dute aldizkariok, eta bertan harpidetza egiteko aukera izanen da.



Txomin Heguy.

L.A

bidea ere izan daiteke. Horretarako, bi bide erabiltzen dira: orrialdearen txoko batean kokatzen den hiztegitxoarena eta sinonimoena. Gisa horretan euskarak dituen forma ezberdinak erakusten dizkio haurari nahiz helduari.

Urtebete egin den epe honetan osatu da aldizkariaren erredakzioa eta kudeaketa, eta horretarako bi kazetarik hartu dute ardurara.

Horretaz gain, itzulpen eta egokitze lana irakasle, hizkuntzalari eta euskaltzale batzuek osatutako idazlan batzordeak egiten du, musutruk.

★	1	★
★	2	★
★	3	★
★	4	★
★	5	★
★	6	★
★	7	★
★	8	★
★	9	★
★	10	★
★	11	★
★	12	★
★	13	★
★	14	★
★	15	★
★	16	★
★	17	★
★	18	★
★	19	★
★	20	★
★	21	★
★	22	★
★	23	★
★	24	★
★	25	★
★	26	★
★	27	★
★	28	★
★	29	★
★	30	★
★	31	★

Jokoak dira nagusi.

Xabier Soubelet

.....Pintorea

Baztango taldekoa da, Baztanen bizi eta pintatu egiten du, poesiak egin eta lagunekin elkartu. Kolore biziak eta argiak agertzen dira bere ko-

droetan, Baztango udazkeneko koloreak, eta paisaiak beti ere: «izadiak betetzen nau, eta paisaiekin aski dut», dio Hondarribiko bere etxetik.

«Baztan dugu musa»

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA

Irungo Udalak antolatutako Adour-Bidasoa Pintura Lehiaketaren lehen saria irabazi berri du Donibane-Lohizunen jaio baina Hondarribian eta Arraiozen bizi den pintore gazte honek. Saria 'Arizkongo Eliza' izeneko lanarekin irabazi zuen. Joan den ekainean ere Donibane-Lohizuneko Udalak pintore eta akuarelistendako antolatutako lehen saria eskuratu zuen.

Kolore argiak dira nagusi bere lanetan: argiak, alaiak eta indartsuak, Baztango udazkeneko kolore beroak. Uda honetan Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean erakutsi zituen lanak, eta laster Iruñean eta Madrilen egiten du gauza bera. Halaber, Ameriketako Euskal Etxeetan bere lanen erakusketak egiteko asmoa badauka pintoreak. Baztandik kanpo oso gutxi pintatzen duela onartzen du. «Baztan baitugu musa».

'Baztango taldea', Baztani dioten atxikimenduak elkartua, lehen bezain bizirik ez dagoela azaltzen du Soubelet, baina oraindik ere baliagarria zaie elkarrekin pintatu eta solasteko. «Apezetxea, Tomas Sobrino, Ana Mari Marin, eta orain kanpoan dagoen Kepa Arizmendi biltzen ginen lehen. Zonbait bizkaitar ere heldu dira Baztan pintatzera eta gurekin elkartzen dira».

EGUNKARIA.— Zer harreman dauka talde honek Mensu, Gaspar Montes Iturrioz eta abarren 'Bidasoako Eskola' izenekoarekin?

XABIER SOUBELET.— Ez dauka inolako harremanik. Bi gauza arrunt desberdinak dira. Bidasoako Eskola gutxi gora-behera, Bera-Lesaka tarte horretan gelditzen da, ez da Baztanera heltzen. Horiek pintatzen dute gehiago itsasoak ematen dien ko-

lorean, eta hemen galtzen da hori. Gurea beste eskola bat da, konposizioan eta tinkoagoa dena, garrantzi handiagoa ematen diona. Oso harreman gutti daukagu haiekin.

EGUNKARIA.— Nahiz eta haiek itsasoari begira egon, eta zuek lurrari, paisaiaren tratamenduan eta bada harremana.

SOUBELET.— Egia da denok gutxi gora-behera paisaiak egiten ditugula, izadia, azken finean. Eta izadia desberdina da alde batean eta bestean. Eta hor berdin bada batasun simbolista bat, bai, baina harreman gutti dugu, hala ere. Nik uste dut Baztan alde honetan ikusten diren koadro eta izadiak ez direla batere horren irudikoak. Eskola hau 'Cezannezalea' izan daiteke, eta Apezetxeak markatu du nolabait bidea. Hortik abiatuta bakoitzak egin du bere bidea,

baina beti ere konposizioari garrantzi handiagoa emanez. Bestaldean gehiago dute kolorea eta. **EGUNKARIA.**— Baztandik eta Baztanerako pintatzen duzue. Eremu horretatik kanpo pintatuko al zenuke?

SOUBELET.— Bai, baina oso gutti. Bestaldean ere pintatzen dut, Donibane-Lohizunen, hango 'Euskal Artistak' taldearen kide bainaz. Baina Baztango nere beste lagunak guttiago. Baztan da gure musa. Noizbehinka ateratzen gara beste tokietara, Uxuera pintatzera edo, baina gure harremanak Baztanen daude.

EGUNKARIA.— Nola definituko zenuke, pinturaren ikusmoldearen bitartez, Baztan?

SOUBELET.— Baztango izadiak baditu forma bereziak, eta udazkenak ematen dion kolorearekin —udazkena pintatzen baitugu,

batez ere—, mugatzen ditu izadiak. Formak eta koloreak garrantzi handikoak ditugu guk.

EGUNKARIA.— Amerikako eskal etxeetan daukazu lanak paratzeko asmoa. Akaso bertan baztandar asko daudelako?

SOUBELET.— Bai, harremanetan nago haiekin, eta beharbada horregatik izanen da. Mexikon paratu nuen erakusketa horregatik izan zen. Orain dena geldirik dago, horretarako denbora eta mentalizazioa behar dudalako, baina egiteko asmoa badaukat.

Poesia ere egiten du Xabierrek, eta 'Itsas eme' hau adibide ederra da:

*'Ni itsasoa naiz
itsasoaren semea;
Nere zainetan ur gazi gorria
dariola
dasurela*

*dabilela... badakit
Bainan mendia dut nik maite
dut nik bake
argi, itzal eta kolore
Zin dagizut ez zaitudala
inoiz
ukatuko, eme
ni bait naiz
zure seme.
Txikitandik nerekin izan zare
zuk egin nauzu seme
orain arte,
bedere,
Bainan gaur, mendia dut maite
Ur gaziz,
Ur-haziz.*

EGUNKARIA.— Nola uztartzen dituzu pintura eta poesia? Zure eginbidean, zer harreman dute elkarrekin?

SOUBELET.— Sentikortasuna bi aldetatik ateratzen zait, baina bi alderdiak arras desberdinak dira. Momentu desberdinetakoak. Pintura momentutan ez dut olerkiak egiteko batere gogorik, eta olerki momentutan, pintura ere ez. Bi gauzak lotuak daude sentikortasunaren aldetik, baina batek ez dio besteari momentu batean trazarik egiten. Hala ere, pinturak gehixeago betetzen nau.

EGUNKARIA.— Doinu aldetik armonikoak eta oso biribilduak dira poesiak, eta pintura ere bizia da, kolore argikoa. Hori bizitzaren ikuspegi baikor baten ispilua al da?

SOUBELET.— Nere pinturak erakusten du bizitzeko modu baikor bat, baina poesiak ez. Aldrebes. Bizitza eta heriotzaren arteko lotura dago hor, eta bizia pinturan egiten dut eta olerkietan heriotza. Beltza eta txuria dira, eta biak lotuta.

EGUNKARIA.— Zuen pinturan soilik paisaia agertzen da, giza-kumerik gabe. Ez al du tokirik?

SOUBELET.— Ni izadiak betetzen nau. Aisa gehiago. Eta hala ere, etxean eta pertsonaiak egiten ditut, baina...



JUAN MARI ONDIKOL

NISKIJATOR

© Zaldi Eroak

